

FRANTZIAKO TOURRA FRANTZIAR, ESPAINIAR ETA EUSKAL PRENTSAN (1903-2013): KAZETARITZA ETA NAZIO-IDENTITATEA

Tesiaren egilea: Xabier Fernández Monje

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)

Saila: Kazetaritza Saila

Tesi-zuzendaria: Iñaki Zabaleta Urkiola

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honetan, Frantziako Tourraren ehun edizioko bizitza aztertzen da (1903-2013), hiru alor eta helburu nagusitan: kirol-ekintza eta komunikabide-gertakizun nagusi honen bilakaera historikoaren interpretazioa; prentsak egin duen kazetaritza-jarduera eta edukia; eta naziotasunaren identitatearen enkoadraketa, soslaia edo *framinga* egunkarietako informazio eta iritzietan.

Frantzian, Espainian eta Euskal Herrian argitaratutako egunkari garrantzitsuak ikertu dira, generalistak eta kirolekoak: *L'Auto* (1900-44), *ABC* —Madril— (1903), *Mundo Deportivo* —Bartzelona— (1906), *Excelsior* (1924-31), *Marca* (1936), *Le Monde* (1944), *L'Equipe* (1946), *El País* (1979), *Egin* (1977-98), *Gara* (1999), *Euskaldunon Egunkaria* (1990-2003), *Berria* (2003). Edukien lagina 6.766 informazio eta iritiz osatuta egon da, eta 354.432 datuko datu-basea sortu da.

Denbora-unibertsoa 110 urtekoa izanik (1903-2013), hiru urtealditan banatu da, irizpide estrategikoak eta historikoak kontuan hartuz: 1903-1914, hasierako urteak; 1930-1970, Bigarren Mundu Gerraren aurrea eta ondorena; eta 1978-2013, modernitatearen aroa.

Analisi historikoari dagokionez, ondorioztatu da Tourra kirol-gertakizun eta denbora berean naziotasun- eta identitate-sortzaile eta sustatzaile bihurtu dela.

Kontuan izanik kazetaritzaren teoria eta praktika, aztertutako hamaika egunkarien ekoizpena honela sintetiza eta interpreta liteke erabilitako bost parametroen arabera (kokapena, irudi/testu erlazioa, informazio/iritzi erlazioa, protagonista eta egilea): 1) Testua eta informazioa dira nagusi. 2) Albistearen generoa da ugariena Frantzian, kronika Espainian, eta kazetaritza-generoen dibertsitate handiagoa dago euskal prentsan. 3) Gehien argitaratzen duten eduki mota kirolaren ingurukoa da eta, distantzia handira bada ere, dopina dator, emaitza adierazgarria seguruenik. 4) Protagonista nagusi txirrindularia da eta gizonezkoa. 5) Leinuari begiratzuz, argi ikusten da herrialde bakoitzeko prentsak bere leinuko protagonistak lehenesten dituela.

«Agenda-ezarpenaren teoria» erreferentziazat hartuz, egin daitekeen inferentzia da hiru herrialdeetako egunkariak, modu orokorrean hartuta, antzeko kazetaritza ekoiztu eta eskaini dietela euren irakurleei kokapen, grafikotasun,

eduki eta protagonisten ezaugarri estrukturaletan, eta berezitasuna protagonisten leinutasunean egon dela, bakoitzak bere leinukoak azpimarratuz.

Naziotasunaren teoria abiapuntutzat hartuta, ondorio nagusi modura esan daiteke hiru herrialdeetako prentsaren artean, naziotasunaren diskurtso edo marko orokorrari dagokionez, ez dagoela desberdintasun adierazgarririk. Hala ere, hiru identitate nagusien inguruan jartzen bada fokua, orduan bi eredu franko desberdin azalerazen dira: batetik, bi estatuetako prentsaren eredu, zeinean naziotasun esplizituak eta identitate propioaren aldekoak oso garrantzi handia daukaten; eta bestetik, euskal prentsarena, naziotasunaren agerpenean apalago, adiskidetsuago eta positiboagoa irudikatzen dena. Bestalde, kazetaritzarekin lotura duten hipotesiei dagokienez, edukiaren zati garrantzitsua egunkarien lehen orrialdean edo azalean dagoela onetsi da. Informazio/iritzi generoen azpikategorietan desberdintasun nabarmenak daudela baieztatu da. Edukien egileek antzeko portzentajeak dituztela ez da bete eta, alderantziz, onetsi behar da hiru herrialdeetako prentsaren artean desberdintasun estatistiko adierazgarriak daudela lau kategoria nagusietan (kazetaria, ez-sinadura, agentzia eta erredakzioa). Egilearen sexuaren arrakala dagoela egiaztatu da. Gizonek sinatzen dute albiste gehien. Sinatzekotan, 1978-2013 urtealdian sinatzen du emakumeak, Euskal Herriko egunkarien eta besteen arteko aldea esanguratsua izanik. Protagonista motari begira ez dagoela desberdintasun esanguratsurik onetsi da. Txirrindularia da protagonista nagusia.

Protagonistaren leinuari begira, nazio-identitateak esanguratsuki desberdinak direla onetsi da. Herrialde bakoitzeko prentsak bere leinuko protagonistak lehenesten ditu, baina hiru herrialdeen artean desberdintasun batzuk daude eta bloke bi agertzen dira: batetik Euskal Herriko egunkariak daude; eta bestetik, portzentaje doblearekin gutxi gorabehera, frantses eta espainiar egunkariak daude.

Protagonisten sexuari dagokionez, gizonen presentzia erabatekoa dela baieztatu da. Kolektibotasunean desberdintasun esanguratsuak daudela ez da baietsi, aipamen indibidualek antzeko portzentajeak baitituzte hiru herrialdeetan.

Beste aldetik naziotasunarekin lotura duten hipotesiak aztertu dira. Onetsi da ez dagoela alde nabarmenik nazio-identitatea gatazkatasunaren arabera enkoardratzean. Ezetsi da nazio-identitatearen soslaia berdintsua dela aurkakotasunaren kontzeptuaren presentziari dagokionez. Onetsi da ez dagoela diferentzia adierazgarririk nazio-identitatea positibotasunaren arabera enkoardratzean. Nazio-identitatearekiko positiboak diren informazioak eta iritziak ugariagoak dira espainiar prentsan (% 27,0), ondoren euskal prentsan (% 20,8) eta azkenik frantziar prentsan (% 16,5).

Hiru herrialdeetako prentsan, naziotasunaren enkoardraketa orokor desberdina aurkezten dela lau kontzeptuen arabera —ikurtasuna, gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna— ez da onetsi.

Ezarrirako azken hipotesia —hiru herrialdeetako prentsan, 1978-2013 epealdian, naziotasunaren enkoardraketa orokor desberdina aurkeztu dela sei kontzeptuetan, naziotasunaren presentzia, ikurtasuna, leinutasuna, gatazkatasuna, aurkakotasuna eta positibotasuna— ez da guztiz onetsi, leinutasunean eta aurkakotasunean soilik diferentzia aipagarriak daudelako.